



ABALTZISKETA

## HEGAZTI GRIPEA

Aldundiatik jakinarazi digute azken aste hauetan etxeko hegaztien artean gripea sortzeko arrisku guneak ikusi direla eta horren aurrean bioseguritate neurriak hartu behar direla.

Aldundiak, hegaztien gripea saihesteko ondorengo neurriak betetzea eskatzen du:

1. Basa hegaztiak erakartzeko, ehiza garaian, debekatua dago Anseriforme eta Txara-driforme hegaztiak erabiltzea.
2. Hegaztiak kanpon daudenean ezinbestekoa izango da beharrezkoak diren sarekin babestea, basa hegaztiak bertara ez sartzeko.
3. Kanpoan dauden hegaztien jan eta edateko ontziak babestutako lekuan egon behar dute, basa hegaztiak bertara inguratu ez daitezten. Bertako hegazti eta basa hegaztien arteko kontaktua saihesteko.
4. Etxeko hegaztiei ura edozein putzu irekitatik ezin zaio eman, biltegi eta hodei baten bidez estalita dauden puntutik ura eman behar zaie.
5. Hegaztiak, lehiaketa, erakusteko azoketara e.a. era eramatea debekatua dago.

Beste aldetik, jakinarazi digute adierazitako neurri hauez gain, hegaztien erregistroa egin behar dela eta horretarako nekazal bulegora (kamara agraria) deitu behar da, telefono zenbaki hauetako batera:

- 943.41.51.27 (Alberto)
- 943.41.51.21 (Estitxu)
- 943.41.51.26 (Mikel)
- 943.41.51.22 (Iraia)

Mesedez, hegaztien jabeek, neurri hauen berri jakin eta beteko direlakon gaude, guztion onerako.

Zalantzarik baduzu deitu udalera.

Abaltzisketan, 2021eko otsailaren 10ean.

Alkateak